

BERRIGARA

45. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, abenduak 13



Felix

Muruamendiaraz:


txofer baten oroitzapenak



**Adintsuen
astea
larunbatetik**



**Bergarako
alargunen
taldea**



**Zezeagak
hasiera
ona**



- Marko-jartzeak
- Posterrak
- Litografiak


Nikon

Banatzaile ofiziala

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 58 05

KIÑU

Errebelatu azkarra
laborategi profesional
onenetarikoa.



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

ARGAZKI

**18 urtean
zure zerbitzuan**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Jon Ostolaza

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Ni la busques ni la temas

Jon Ostolazak idabazi du ZUBIKUA JANTZIDENAKO SARIA.

**ZORIONAK irabazleei!!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderarai!**

SANTOS

IRRATI - TB

**Elektragailuak
Sukaldeko Altzariak
Argiztapena
Antena instalazioak
Elektragailuen konponketa**

Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki
Arietaleaniz eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose
Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi,
Mikel Elkorobereibar, Josune
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa
Bikufia

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
Txomin Retolaza, Kifitu eta Pol-
Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:
Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lego gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkiz-
zunik.



Ian Gillan eta Mamma's Boys taldeak izango ditugu bisitari larunbat honetan Txibisto dantzalekuan. Ian Gillan, Deep Purple talde historikoaren ahots ahaztezina-izan genuen eta hamar urtetik hona bakarlari bezala dihardu jotzen mundu osoan zehar. Oraingo honetan, *Tool Box* bere azken dikaren kantak aurkeztuko dizkigu. Aurretik, Mamma's Boys taldea bere rock gogorrarekin. Larunbatean, Txibiston, gaueko 11etan.

LARUNBATA 14

• **Eskubaloia:**

- Bergara-Urola (kadete mutilak), 17.30etan.
- Bergara-Ereintza (gazte neskak), 18.30etan.
- Bergara-Zarautz (senior gizonetzkoak), 19.45etan.

• **Saskibaloia:**

- Bergara-Urmak Ikastola (gazte mutilak), 16.00etan.
- Bergara-Amigos Baloncesto (gazte neskak), 16.00etan.

• **Pelota partiduak:**

- Soroa III-Salbidea/Zabala-Iturza, Bergara II-Errasti/ Bengoetxea IV-Arretxe eta Herran-Unzain/Iribarren-Garaita, Pelotalekuan 16.30etan.

IGANDEA 15

• **Eskubaloia:**

- Bergara-EHU (junior mutilak), 12.15etan.
- **Futbola:**
- Bergara-Azkuene, Agorrosinen 15.30etan.
- **Erakusketa:**
- Eskulanak Kultur Etxean (azken eguna).

FARMAZIAK



- 14 Puy
- 15 Puy
- 16 Guallar/Morales (Arrasaten)
- 17 Estella/Azkoaga
- 18 Mozos/Español
- 19 Camacho/Corcuera
- 20 Puy/Amezua
- 21 Guallar/Ruiz

ZINEA



El gran balcón

- **OSTIRALA:** 22.30etan.
- **IGANDEA:** 15.00, 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30.

En la cama con Madona

- **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 eta 22.30etan.

Agárralo como puedas 2 1/2

- **IGANDEA:** 11.30etan.

Mas allá del arco iris

- **OSTEGUNA:** 19.30.

OGIA



Bolintxo

Mujika Tantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

ezpeleta etxea

Harizko eta kotoizko
goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ezpeleta etxea Gauza berriekin zuekin berriro

Barrenkale 44an

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

KATAIDE Jatetxea

- Perretxikoak plantxan
- Piperrak perretxikoz eta kanbaz beterik
 - Berdura Pudina
- Berenjena kremaz urdaiazpiko eta ganbekin
 - Kataide itsasapoa
 - Solomilloa pipar hautsaz
 - Kataide degustazioa

3.000 pzta.

Kataide Pol. Ind. ARRASATE
Tfnoa: 77 10 80 - 79 60 10

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

Enpresa Komiteari alkatearen erantzuna

Enpresa Komiteak Udal honetara eta komunikabideetara izenpetu gabe bidali duen idazkiari erantzun nahi dio Alkate honek.

1. "Ixilean egin den kontratazio susmagarri hau salatzen dugula".

Ez da ixilpeko kontratu susmagarria izan, Idazkaritzako langile batek mokorra apurtu, eta baja 3-4 hilabetekoa izan zitekeela jakin zenean, Idazkaritza eta pertsonaleko zerbitzuan lan asko zegoela eta ordezkioa lehenbailehen hartu behar zela adierazi bait zidaten. Aurrez lan horretan aritu eta lan-eginkizunak ondo ezagutzen zituen pertsona bat proposatu zitzaidan, eta titularra bueltatu arte bera kontratatzea erabaki nuen. Enpresa komiteari ere jakin erazi zitzaion proposamen hau.

2.- "Deialdi publikoak kontutan hartu beharra dagoela, halako baja kasuetan presazko lana egonda ere, kontratazio modu hau jarraitu ez dadin".

Presazko lanak ez dira beste baja kasu batzuetarako prezedentea, ezta jarrera hori hartzeko aitzakia ere; baina Udal honen eginkortasuna ziurtatu beharra dago.

Baja kasuetan ez da halako presazko erabakirik hartu izan, normalean motzak izan ohi direlako, baina kontutan hartu behar da de-



ialdi publikoak gutxienez hilabetez luzatzen direla, eta halako ezohizko eta presazko egoeratan Udalaren martxa ez oztopatzeko behar diren berehalako soluzioak topatu beharra dagoela.

Jakin badakizue aurrez ezagutzen diren baja luzeetarako, amatasun bazarako esate baterako, administraria hartzeko deialdi publikoa egin dela.

3.- "Kontratazio modu hau, Udaletxeko lanpostuetara aurkeztu diren, bertako langile, eta Enpresa Komiteari barre egitea dela".

Langileak, Enpresa Komiteko kideak eta Bergarako langabetu guztiak errespetatzen ditut, beraz, uste dut lekuz kanpo dagoela inori barre egiten diodala esatea, eta ez dut gehiago komentatuko.

4.- "Udal hau oso legala dela langileen eskubideak kontrolatzeko orduan, eta hala komeni zaionean kasorik ere ez duela egiten".

Udal honek ez dio langileei eskubiderik ukatu; indarrean dagoen hitzarmena betetzen bait du.


Eta bukatzeko, ez dela Udal honi komeni zitzaion kontratazioa izan, egoerak hala eskatuta hartu behar izan den presazko erabaki bat baizik.

Bergarako alkatea

Tiira ba!



BAI, TA OSO HONONUA JAK



Josu Okina



□ Gabonak

Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak aurten Gabonetarako kale gehiago argiztuko direnez, kale hauetan negoziarik duten komertzianteen laguntza eskertuko lukeela jakinerazi nahi du, izandako harreraren arabera jokatu baitu datorren urtean. Kaleak abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra bitartean egongo dira argiztatuak.

□ Jubilatua

Ostiralean, hilak 13, *Jubilatueta*ko kolaboratzaileek urteroko afaria izango dute *Jubilatu*en *Egoitzan* gaueko 11etan. Datorren larunbaterako berri, *Santo Tomas eguna* ospatzeko eguardian txistorrada izango dela iragarri dute.



92rako obrak

Udaletxeko *Hirigintza Batzordeak* Gobernu Batzordean *Ibargarai Hiribidea* asfaltatzeko proiektuaren obrak urtarreleko bigarren hamabostaldian hasteko proposatu du. Proiektu honen arabera, Bilintx liburategitik Beheko Estaziñora doan tartea asfaltatuko da, batxe ugari bait dira inguru hortan. Obren aurrekontua 9 milioi pezetakoa da.

Bestalde, *Osintxu*ko barianteko iparraldean Soraluze aldera dagoen kurba berrizatzeko onartu berri den proiektuan, irteera zubi azpitik egitea jasotzen da eta beraz, Soraluze aldera irteera zuzena egin ahal izango da. Obren adjudikaziorik egin ez den arren, aurrekontua 89 milioikoa da eta lanak 4 hilabetez egin beharko dira.

□ Azaro-abendu

Bergarako Musika Eskolako taldeek kontzertua eskeiniko dute ostiralean, hilak 13, *Azaro-abendu Musikalaren barne*. *Kristina Larrañaga, Alberto Laskurain eta Anjel Agirianoren* zuzendaritzapean, Eskolako talde guztien kontzertua arratsaldeko 7 terdietan hasiko da *Novedades Aretoan* eta sarrera dohain izango da.

□ Odol Emaleak


Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten die gure herrian diren odol emaleei datorren asteazkenean, hilak 18, arratsaldeko 7etan, Seminarioko lokalean egingo den aurtengo azken odol ematean parte har dezaten.

Euskal kultur zentrua

Eusko Jaurlaritzak Errekalde Jauregian orain dagoen *Ondare Dokumentalaz gain Euskal Kulturaren Ondarea* jasoko lukeen zentrua kokatzeko eskakizuna egin dio Bergarako Udalari. Udaletxeak eskakizun hori onartu ezker, euskal kulturari buruzko dokumentazioa bilduko litzateke bertan eta egingo liratekeen ikerkuntzak eta horien hedapena ere zentruaren ardurapean egingo lirateke. Printzipioz, Kultur Zerbitzuko arduradunek beraien on-iritzia azaldu duten arren, oraindik Udalak hartu beharko du horren erabakia.




Ziripot
Bldekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41




PUC - VEKA - LEIHOAK-ATEAK
Elorregi Auzoa
BERGARA
Tfnoa: 76 58 87

❑ **Pizinako kuotak**

Pizinetako kuoten prezioek gora egingo dute 92an. 16 urterarteko neska-mutikoek 6.650 pezeta ordaindu beharko dituzte; 16 eta 20 urte bitarteko gazteek 8.500 eta hortik gorakoak berriz, 10.500 pezeta. Karnet familiarra egin nahi izanez gero, 14.100 pezeta seme-alabarik ez duten senar-emazteentzat, seme-alaba bakarra dutenek 15.100, bi dituztenek 16.100 eta hiru edo gehiago dituztenek berriz, 16.700 pezeta ordaindu beharko dituzte.

❑ **Egunkaria**

Igandean, hilak 15, arratsaldeko 5 t'erdietan *Egunkariaren urtebetetze festa* izango da Donostiako Belodromoan. Bertan hainbat abeslari, pailazo, bertsolari eta antzerki taldek hartuko dute parte.



Lanbide ikastaroak

Deba Garaiko Udal Elkarteak 16 eta 17 urteko gazteentzat datorren urtean emango diren lanbide ikasketa ezberdinen egitaraua jakitera eman du. Ikastaro hauekin Deba Garaiko Mankonunitateak edade horretan eskolatik kanpo geratu izan diren gazteei aukera berri bat eman nahi die lanbideren bat ikas dezaten. Ikastaroak urtarrietik abendura bitartean izango dira Bergaran, Arrasaten eta Oñatin eta gazteek mekanika, arozgintza, elektrizitatea edota sukalda-

ritza ikasteko aukera izango dute; Bergaran arozgintzako praktikak emango dira, Arrasaten mekanika eta elektrizitatekoak eta sukaldaritzakoak berriz Oñatin. Izena emateko epea astelehenean, hilak 16, itxiko da eta Bergarako Udaletxean Mariaje Unamunorengana jo dezakezue informazio gehiagoren eske. Deba Garaiko Udal Elkartearen bulegoetan ere etorkizunean oso baliogarria izan daiteken bide alternatibo honen zehetasun gehiago jaso dezakezue.

❑ **Kontzertuak**

Bi kontzertu izango dira *Tribiston* astebukaera honetan; batetik, ostiralean, hilak 13, *Barricada* iruñear taldeak joko du gaueko 11etan, bere azken diskoen abestiak eskeiniko dituelarik. Bestetik, larunbatean gaueko 11tan, *Ian Gillan* eta *Mamma's Boys* taldearen bisita izango dugu San Juango dantzalekuan.

❑ **Eguzki**

Materiale ezberdina jarri du salgai egunotan *Eguzki* talde ekolojistak. 92ko egutegi ikusgarria 300 pezetatan saltzen da, boltsikoko egutegiak 5 durotan eta, azkenik, nobedade gisa, 400 pezeta balio dituen *Asterix* eta *Zentral Nuklearra* komikia kaleratu dute Eguzkikoek. Guzti hauek Pol-Pol, Arrano edota Gaztetxean eskura ditzakezue.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

ANDIZU

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

Azulejo erakusketa • Onduline
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

ARDATZA
brikolaketa

ateak eta horma
armairuak

Mahasterreka 4

76 18 93



Zaharren astea

Larunbatean, hilak 14, zaharren asteari hasiera emango zaio *Mizpirualde Egoitzan*. Hasteko, larunbatean bertan, meza izango da 12etan ordu batetan bazkaria eta ondoren dantzaldia. Igandean, arratsaldeko 5etan, zine emanaldia izango dute. Astelehenean, berriz, arratsaldeko 4 t'erdietan, merienda eta dantzaldia. Asteartean, zine emanaldia 5etan eta 7 t'erdietan, *Umore Ona abesbatzaren* kantaldia. Asteazkenean, hilak 18, *Elgetako Udalak* lau t'erdietako txokolatada

eta dantzaldia prestatuko du, 8ak aldera *Aritzeta abesbatzak* saioa emango duelarik. Ostegunean jokurako aukera izango dute; 5etan bingoa eta erregaluen zozketa izango da eta, zazpi t'erdietan, *Musika Eskolako Taldearen* saioa. Asteari bukaera emateko, ostiralean, hilak 20, karta eta domino txapelketak izango dira eta, eguraldi ona egiten badu, token eta igel jokuan duten trebezia ere erakutsi ahal izango dute Bergarako zaharrek.

Txinpartak

✓ *Aritzeta Abesbatzaren* kontzertua izango da ostiralean, hilak 13, Soralueko Parrokian. Larunbatean berriz, Bilbon abestuko dute Aritzetakoeak.

✓ *Rosa Azkue* sendagileak *Ametsen alterazioei* buruzko hitzaldia emango du asteazkenean, hilak 18, arratsaldeko 5etan *Jubilatueta*n.

✓ Jubilatueta ere eratu dira dagoeneko *Lan Batzordeak*. Batzorde hauek bazkide guztiei zabaldurik daude eta hilean behin izango diren batzarretan bazkideek aukera izango dute beraien proposamenak aurkezteko.

✓ Datorren ostiralerarte, hilak 20, ikusgai duzue Iruneko *Kokoschka Galerian Abdon Juaristi* margolari bergararraren oleo erakusketa.

✓ Iganderarte berriz, hilak 15, *Kultur Etxean Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* antolatutako ikastaroetan izan diren emakumeek egindako lanak ikusteko aukera izango duzue. Bertan makrameak, kristal gaineko marrazkiak... etab. aurki ditzakezue.

✓ Joan den igandean 60 argazkilarik hartu zuten parte *Pol-Pol Mendizale Taldeak* antolaturiko *argazki rallyan*. Urtarrilaren 18an, aurkeztutako lanen diapositiba emanaldia izango da.

✓ Bergarako *Taun-Taun Kolektiboak* parte hartuko du astebukaeran Gipuzkoako zenbait herritan ospatuko den *IV. Kafe-Teatro Jaialdian*.

BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

Turismoak,
kamioiak, etab.


Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

MAKAILO

Makallau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargaral 15

A



ARRASATE

ELKORO ANTENAK

✓ **TB Satellite bidez**

✓ **Telebanaketa**

Tfnoa: 79 18 86

Felix Muruamendaraz Bizitza guztia kaminoan

Felix Muruamendaraz, 81 urte, ia bizitza guztia kaminoan, transportista lehenengo, eta gero gerra denboran Jose Antonio Agirre lehen Euskal Gobernuko Lehendakariaren eta Telesforo Monzon Sailburuaren txofer izan zen. Gerra amaitu zenean, Franco boterean zela, Lehendakariarekin batera erbestera jo behar izan zuen Parisera.

1.911ko urtarrilaren 24an San Antonioko Etxeberrin jaio zen. Gaztetatik ibilgailuak gidatzeko zaletasuna erakutsi zuen gure solaskideak: "18 urteko mutil-koxkorra nintzela osabaren Labegarrietako teilerian ekin nintzen lanean. Han ikasi nuen gidatzen. Osabak ez zidan uzten baina ni, goizean-goiz lanean hasi baino lehen, bertara joan eta kamioia hartzen nuen praktikatzeko".

Laister, teileria utzi eta Bilbora abiatu zen «Hierros Euskalduna» enpresan lan egitera: "Bilbotik Eibarrera burdina garraiatzen ibiltzen nintzen kamioiarekin. Handik lasterrera enpresa utzi eta errekadista ekin nintzen Bergararik Bilbora neure kontura".

Gerrako lehen urteetan, 1.936 inguruan, Pa-

saatik Bergarara «Manso Hermanos» enpresarentzat ardoa ekartzen zuen: "kostatik egiten nuen bidaiia, Tolosa aldea Nazionalek hartua bait zuten".

Bergaran egoera hesitu zenean, ostera, "kamioia gorde eta berriro Bilbora jo behar izan nuen". Bilbon Ertzaina izateko deialdietara aurkeztu zen, Ricardo Gorosabel bergararrarekin batera: "dozena bat besterik ez ginen".

Felix, transportista izanik, Luis Ortuzar Ertzainen komandanteak bere txofer izateko hartu zuen.

Gobernua osatu zenean

Gerra aurrera zihoala Euskal Gobernua eratu zen Gernikan, urriaren 7an. Felix beste Ertzaine-



kin batera eskolta egitera abiatu zen Juntetxera. Eta han, beste bergarar batekin topo egin zuen: "Telesforo Monzonek ikusi eta deitu ninduen. Bere txofer izan nahi nuen proposatu zidan. Nik baietz esan nion, nola egingo nion uko Gobernazio Sailburuaren koxte gidaria izateari. Nik nere aldetik, Patxiko Gabilondo eta Toribio Aranguren «Txorixa» deitu nituen eskoltarako txofer izateko".

Telesforo txikitatik ezagutzen zuen Felixek, elkarrekin askotan ibiliak ziren Bergaran. Horregatik euren arteko harremanak bereziak izan ziren gerra garaian elkarrekin egon ziren bitartean. Behin Bilbon gertatutako pasarte bat ondo

gogoratzen du: "Gernika bonbardeatu zuten eguna zen. Hura nola geratu zen ikustetik bueltan Bilbora etorri ginen. Antiaereoekin hegazkin aleman bat jo zuten eta pilotoak parakaidasean salto egin zuen. Lurra zapaldu eta segituan garbitu zuten errepublikanoek. Harrapatutako alemana Gran Viatik gora manifestazioan zekartenean, Gobernazio aurretik pasatu ziren, Telesforo balkoira irten eta «Aquí tenemos un héroe de la Republica» oihukatu zuen. Ni barruan nengoen eta behetik soldaduek eskopetekin apuntatzen zeudela ohartu nintzenez, bizkarretik heldu eta atzera ekarri nuen Telesforo. Ez zen ohartu han zeramaten alemana zela".

ANTIA HARATEGIA
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

BRUNET MERKATALDENDA



Ozaeta, 11-13 Behea
Tfnoa: 76 31 52
BERGARA

Heriotza gertuan

Gerraren azken urteetan, Bilbo galduta, Truziosera abiatu zen Gobernua. Telesforok Presidentziako kotxeen arduradun izatea proposatu zion Felixi. Urte latzak errepublikaren aldekoentzat. Txofer batzuk Leizaolarena, esaterako, beste bandora ihes egin da ziren. Truziosetik Santanderrera. Azkenetan ziren. Handik Asturiasera deitu zuten Lehendakariaren kotxe berriaren bila. Ezin izan zuen kotxea hartu. Santanderrera ezin zitekeen itzuli, beraz, Valentziara desenbarkatu beharrean aurkitu zen, "han bait zegoen Errepublikako Gobernua". Barkua hartzera zihola beste lagun batzuren artean harrapatu zuten Nazionalak: "eskerrak ezagun batekin topo egin nuela eta aske utzi ninduela, bestela besteekin batera afusilatuko ninduten". Han salbatu zuen Felixek bizia.

Lehendakariarentzako kotxe berria utzi eta, bestaldera, iparraldera pasatu zen.

Lehendakariaren txofer

Bizimodua nonbaitek atera behar, eta lagun batzuekin batera pinuak botatzera mendira joatea erabaki zuen. Baina le-

henago Angelun zegoen Erbesteko Gobernua agurtzera joan zen. 1.937ko abuztua zen. Telesfororekin bildu eta honek, Lehendakariaren txofer izateko aukeratu zutela jakinerazi zion: "hura nire poza, Lehendakariarekin Parisera edo eta mendira pinuak botatzera. Aldea argi dago. Suertea izan nuen".



Sekula ez da Agirre Lehendakariaren moduko gizonik jaioko. Hura zen gizona hura

Parisn urteak eman zituen Jose Antonio Agirrerekin. Lehendakariaren txofer ofiziala bere etxean bertan bizi zen: "sekula ez da haren moduko gizonik jaioko. Hura zen gizona hura. Inguruko guztiek errespetatzen zuten, bai lagunek, bai areri-

oek. Diplomaziaren artean ere oso gizon errespatatua zen. Orain biziko balitz lurrera eroriko litzateke berehala, hau ez da jiria eta".

Felix 1.951.ean Euskal Herrira itzuli zen berriro, Parisen hainbat enbajadako txofer izan ondoren. Aurretik, II. Mundu Gerran alemanak Frantzia hartu zutenean, Jose Antonio Lehendakaria eta Felix bakoitza bere aldetik sakabanatu ziren.

Euskadira iritsi ondoren, Felix transportista hasi zen, Zerrajeran lehenengo, Mayc-en gero

eta Fagorren azkenik. 73 urterekin jubilatua zen. Maria Dolores Erdabide emaztearekin bi seme-alaba izan zituen: Esteban eta Maritxu.

Felixekin luzaro jardun dugu, hainbat eta hainbat kontakizun kaseteen grabatutageratu dira. Parisen pasatako urteetako pasadizoak, gerra garaiko oroitzapenak..., berba eta berba... Bere bizitzan gogoratzen duen egunik txarrena, Jose Antonio Agirre Lehendakaria hil zenekoa. Izugarri miresten zuen.



Felix Muruamendiaraz, Mexikoko enbajadako kotxe ofizialaren aurrean. Cevolette deskapotablea. Felixek enbajada askorekin izan zituen harremanak Parisen.

LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraskozurl 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

JOSE LUIS eta MIKEL

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

GURIA

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

Ermiten liburuak noizkoak?

Oraingoan Bergarako ermitek zituzten liburuen berri ematen digu Imanol Sorondok. Ermita bakoitzak bere liburua omen zuen eta bertan, ermiton hasierako urtea agertzen zen. Adibide modura ermita batzuen hasierako urteak azaltzen dizkigu.

Ermita bakoitzak bazuen bere liburua, eta hau da lehendabizi azpimarratzekoa. Gainera, garai haietan oso jende gutxik zekien idazten, adibidez Angiozar eta Osintxu osoan agian ez ziran bost baino gehiago zekitenak, eta maiordomoak edo ermiten eta bere liburuen kargua zeukatenak auzotarren artean txandaka aldatzen ziran. Beraz, oraindik harrigarriagoa.

Liburu horietan diru kontuak jasotzen dira. Sarreretan urtetik urtera eta ermitako santu nagusiaren jaietan bildutakoak; ordainketetan, berriz, krisailuen olioan, argizaritan, hau da argitan gastatutakoa, horrela izaten bait zen kontuetan jasotako gairik nagusiena. Noizean behin bakarrik beste gastu batzuek, konponketaren bat, adibidez. Eta beti urte har-

tako maiordomo kargua zeukanak firmatua.

Hona hemen Bergaran gelditzen diren ermitetako liburuen zerrenda, beren hasierako urtearekin:

San Millan, 1.528; San Anton, 1.554; San Blas, 1.555; Aingeru Zaindaria, 1.590; Azkuretako San Martin, 1.628; San Kristobal, 1.659; Santa Katalina, 1.662; Elosuko Santa Kruz, 1.663; Udariagako Asentzio, 1.672; San Migel, 1.686 eta Elixamendiko Andre maria, 1.746.

Badira beste liburu batzuek geroztikakoak frantzeziaren inguruan edo ondoren hasitakoak, eta horien gudariak mantentzeko ermita batzuen beharrezko substaten diru kontuei, guda horretan hondatu ta galdutakoei, etab., begirtzen dietenak.

Imanol Sorondo



San Blaseko ermita, 1.555 urtekoa, goiko argazkian. Behekoan, berriz, San Anton Abad, 1.686 urtekoa, liburuetan azaltzen denarren arabera.



**LASA
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

Pepelu
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07



Urte bat egin dugu



Kultura informazioaren bidez

Prentsa, orokorrean, hiltzoriaren eta bizi nahia-
ren artean dabilen une
honetan, badago indarra eta bi-
zitasuna hartuz doan argitara-
pena, informazio lokalarena a-
legia. Berau, gainera, kultura-
ren irispena gordetzeko ahale-
ginean dugu.

Urte honetan zehar, Berrigarak herriaren bizitza politikoa eta sozialaren jakitun ipini du herritarra ikuspuntu erraz eta atseginetik. Horrekin batera, euskaraz irakurtzeko ohitura errotu nahi izan du.

Prentsa lokalak, horretara, informazioaren eta kulturaren zereginak uztartu ditu erabat, baina gure barren-barreneko historiaren haria eten ez dadin, atzera begirako datuak ahantzi gabe.

Beraz hiru kontzeptu bakar batean bildu ditu: informazioa, kultura eta historia Berrigararen.

Juan Luis Bikuña

Zuri beltz
Margoak

- Etxebarru eta kanpokaldean konponketa.
- Mota guztietako pintura lanak

Herri Lagunak 6, Tfnoa: 76 14 60

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24



Denon a

Urte bat egin dugu eta h
 modu batean edo bestereb
 Orrialde hauetan Berak
 aurkeztzen dizkizueguong
 agertzen ez diren beste hateg
 litzaiguke posible in as



Argazki Laborategia, Jaime Garzia, Agustin Gurrutxaga, Miren Leturia, Alberto Eguren, Benito Cantero, Natxo Millan, Jose Aguayo, Patxi Retolaza, Dani Santos eta argazkian agertzen ez den Juan Tabares.


✓ Berrigarako erredakzioan bost lagun ari gara lanean: bi, testuak egin eta hauek maketatzen, beste bat publizitatea maketatu eta harpidetzak egiten, eta bi publizitatea lortzen. Bestalde, beste bi lagun testuen zuzenketaz arduratzen dira.



Marrazkilariak.

Josu Okina (ezkerrekoa) eta Antonio Arrillaga dira Berrigarako marrazkilariak. Euronak dira komikia, eta portadako eta "Zertan dihardute ba?" saileko dibujoak.

✓ Berrigararen kolaboratzaileak oso inportanteak dira. Argazkietan agertzen direnez aparte: "Beraiek Diño", "Bergarako ermittak" eta "Bertako euskeran" sailetan astero idazten dutenak.. Eta baita noizbehinkako kolaboratzaileak ere.



Gizoznezko eta emakumezkoen...

MODAN punta puntakoak gaituzu

Bidekurutzeta 18, BERGARA

eta horretan asko izan dira terebistan lan egin dutenak. Berako kolaboratzaileak guongatik eta argazkietan hartegatik izango ez balitz, ez da astekaria kaleratzea.



✓ **Berrigararen diruiturri nagusiak bi dira: Udalaren dirulaguntzak eta publizitatea. Urtean 260 anuntziante izan ditugu. Ez dira gutxi!! Eskerrik asko guztioi.**

✓ **2.000 aleko tiradarekin eta 16 orrialderekin ekin genion, gaur egun 2.500 bergararrek jasotzen dute 20 orrialdetako astekaria eta laister batean 24 orrialdetako 3.000 ale banatuko ditugu.**

✓ **Bonofotoa eta Galde debalde lehiaketek harrera izugarria izan dute. Astero 300 txartel inguru jasotzen ditugu.**

Astebukaerako Kolaboratzaileak larunbat eta igandetan herrian gertatzen diren berriak jasotzen ibiltzen dira. Argazkian: Ainhoa Lete, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Ainhoa Bikuña, Aitziber Aretxaga eta Mikel Elkoroberezibar. Jon Ander Bengoa eta Mikeldi Bengoa falta dira.



Txantxangorri Taldekoak jo eta ke ibiltzen dira ostiralero, errebista inprentatik heldu bezain pronto, bakoitzari tokatzen zaizkion kaleetako aleak hartu eta etxe-etxe banatzen. Ezinbestekoak zaizkigu zuengana heltzeko.

GESTORIA EGUREN

M. Pilar Eguren Diez
Kolejiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ERROTA - GAIN

Aluminioak

- **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**
- **Galdaragintza orokorrean**

Labegaraieta - Hazkarrutz Auzoa Tfnoa; 76 32 40
BERGARA



Herri aldizkari bat mundu zabalean

Berrigara herri komunikabidea izan arren, ez da bere urtebete laburrean Bergaran bakarrik ibili, mundu zabalean ere ezaguna egin da. Bazter bitxienak bisitatu ondoren hona hemen testimonio grafikoa.




▲ Beligala.

Japon aldean ere harrera ezin hobea izan du gure astekariak.



▲ Klasikoen artean klasiko bat.

Partenoia eta Berrigara. Grezia klasikoaren eta herri prentsaren adierazgarriak.



▲ Estatu Batuetan

badugu irakurlerik. Manhattan-eko berriak ondo isladatzen omen ditugu.



▲ Tunezera heldu eta eskuetatik kendu. Azken bonofotoa nork irabazi du?



▲ Bergaran

38 ermita direla? ... eta ni bizar honekin!!

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

MINER Ardo onak, ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

TOKI-ONA Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak-
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

Bergarako alargunekin

Joan den igandean, Kontzeziño eguna, lagunarteko bazkaria egin zuten

Bergarako alargunek, herriko beste talde batzuren antzera, badute euren lokaltxoak. Orain dela 13 urte Alkartunai elkartearen inguruan sortutako taldeak joan den igandean, Kontzeziño eguna, urtero bezala lagunarteko bazkaria ospatu zuten.



tuztelako eta gehienak gainera kotxea badaukatelako. Bestalde, asko lanean ari dira..." Edadetuak izan arren ez dira normalean jubilatuetara joaten: "hango antzera gaude hemen, hobeto behar bada. Hemen jende gutxiago ibiltzen gara-ta..."

Behar baten ondorioa

Bergarako alargunek seminarioko patioaren izkina batean daukate euren lokala. Garai batean Aitonak jubilatuen egoitza izan zena, egokitu eta 13 urte daramatzate bertan 90 bat emakumek. Gizonnezkorik ez da taldean: "denak gara emakumeak, gizonak badauzkate beren elkarte gastronomikoak eta ez dute normalean horrelakoen beharrik. Gizonen emaztea falta arren badute nora joan eta ez dira bakarrik sentitzen" dioskue kartetan jokatzera bildu diren dozenerdi emakumek. Emakume alargun adintsuak: "gazteak ez dira hona etortzen, ez daukate premiarik lagunak badi-

1.978a zen, SIADECO enpresak Bergarako taldeei buruzko azterketa bat egin zuen. Nieves Belastegi, gaur egun alargunen taldeko arduraduna dena, aipatutako enpresak herriko taldeei deitutako bilera batetara joan zen. Herrian alargunak asko zirelako eta

elkarrekin non bildu ez zutelako, lokal baten beharra ikusi zuten. Harrezkero, urteak joan ahala, gero eta gehiago dira elkarteko bazkide diren emakumeak: "herriko edozein alargun hurbildu daiteke guregana, ez dugu talde itxia osatzen nahiz eta hasiera batean elkar ezagutzen genuenen artean ekin genion. Alargun ez direnak ere etortzen dira hona".

Gizonek badauzkate beren elkarte gastronomikoak, badute nora jo

Urtean ordaintzen duten kuota, argiaren eta uraren gastua eta beste zertxobait pagatzeko erabiltzen dute; urtean behin bestalde, egun baterako irteera antolatzen dute, "ez daukagu beste gasturik".

Afariak, meriendak..., sarri egiten dituzte eta kartetan jokatzera ia egunero biltzen dira. Beti ere alargunaren bakardadea apurtu nahian: "gehienetan betikoak jantzen gara. Astebukaeretan gehiago izaten gara, batzuk jokura, beste batzuk, berriz, berrikeretan egitera"

Emakume hauek primeran pasatzen dituzte negu aldeko zein uda parteko arratsaldeak, ondo dotore apaindutako egoitzan. Gehienetan kartetan jokatzeko. Eurokin berrikeraldia izan aurretik brixkan jokatzeko aurkitu genituen. Mahai gainean dirurik ez genien ikusi, ordea. Dirurik jokatzeko ez zuten galdetu eta, bapatean, tapetea denak batera altxatu zuten; han izkututzen zituzten duroak.

Jesusa, Juli, Josefina, Vicenta, Pastora eta Evarista. ordubete inguru berbetan jardun dugu. Guk alde eta eurak han geratu dira, estufaren bero goxoaren babesean.

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

ZABALETA ERROTULOAK



Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

NEREA

**Gizon-Emakumeen
lenzeria moda**

Simon Arrieta Enparantza 1



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS

oto istema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

GURIDI

Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

GANBARA

Berezitasunak:
**Pintxoak eta
kafea kremarekin**

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75


**T
B
E
R
N
A**

Zer iruditzen zaizu Berrigara astekaria?




Mari Karmen Beitia
51 urte, etxekoandrea

Gustatzen zait. Ondo ekartzen ditu herriko gauzak. Oso ineresantea iruditzen zait.



Jose Ramon Arakistain
39 urte, irakslea

Astero irakurtzen dut eta ondo dagoela iruditzen zait, oso atsegina da. Beharrezkoa da.




Xabier Labaien
28 urte, musika ikaslea

Ondo dago, herriko jendea agertzen delako. Ehun urte barru, gaurko Bergara nolako zen jakiteko testimonioa.



Ane Mujika
28 urte, irakaslea

Oso ondo, Bergaran gertatzen direnak ezin hobe isladatzen dituelako.



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Egin dezagun topa

Jaso kopak eta egin dezagun topa: Berrigarak urtebete! Ostiralero-ostiralero, herritarrak eta herria protagonista, euskara hutsean, dohan eta etxeko buzoian. Berrigara, bere akats eta guzti.

Atzera begiratzean, oroitzapenak. Kultur Etxeko sotanoa. Lagunen arteko irrifarreak, astelehen arratsaldetako bilera amaigabeak... Tortilla bokadiloa xistu bizian jan behar berriro ordenadorera itzultzeko. Eta papelak, ikusi al ditu norbaitek nire papelak? Oraitxe bertan eskuetan ibili ditut!! Ostegun arratsalde madarikatu haiek. Inprentakoak deika eta ezin behingoz alea bialdu...

Ene, Berrigarak urtebete. Zenbat oroitzapen.

Atzera begiratzean ere, eskerrak. Eskerrak astekari honengan sinistu eta bere alde lan egin duzuon guztioi, batez ere musutruk etorri zaretenoi. Zuon laguntzarik gabe proiektua aspaldi agortua eta itoa legoke. Chapeau, zuoi, ostiral honetan ere Berrigara herriko etxe guztietara helduko delako.

Zorionak, Berrigara. Mila zorion. Baina ez gero loak hartu. Herri prentsaren ordua ate joka dator, eta orain da garaia gora egiteko, produktua egunetik egunera hobetuz, txukunduz, gehiago landuz, freskotuz. Horra hor etorkizunerako erronkak.

Tira ba. Jaso kopak, eta egin dezagun topa. Ala... ez al dituzue euskararen alaitasun irrintziak entzuten? Ba bai, Berrigarak urtebete. Ieeuuup!!!

Jon Andueza



David eta Goliat

Urte bete da eskuetan Berrigara geunkala lehenengo aldiz. Gogoz hartu gifuan sortu barria zan astekaria, baina askok irakurri ezinka be bai. Urte bete pasau da eta ezta pasau hutsian, urtebete geroago bi mila eta bostehun dira Berrigara astero etxian hartzen dabena eta jende asko dago itxoitzen, noiz tirada jasoko, etxian hartzen hasteko. Eta urte bete geroago, gogoratzen dozu hasieria?, bihurtu dira, euskeraz irakurtzeari gustoa hartu dotzagu, erreza egin jaku, eta gustora sartu da euskeria, ez entzunez bakarrik, irakurriz be bai.

Bakoitzaren barrenian zerbait mobidu da, euskeriaren David txikixak erderiaren Goliat indartsua, lehenengo aldiz, ondo sustertuta zeguan lekutik mobidu dau askorengan. Hemendik aurrera ez dabe balio aitzakixak: frankismua zala, eratzuna zala, eta eztakit zein eskolatan ez eskuela erakutsi. Euskeria galtziaren kulpia guzti horrena izan leike, baina gaur egun ez eittian errua geuria besterik ez da.

Bizirik dagoenaren, norberaren, esku dago euskeraz bizitzia ala ez. Norberaren determinaziñua (autodeterminaziñoa) da hemen balio dabena. Urte batean irakurtzen ikasi dozu, orain emon hurrengo saltua: hasi eskribitzen. Ez bildurtu, Goliat erdarak indarra eukiko dau baina Davidek, ikrakurle, irabazteko erabagixa hartu dau zure barrenian. Eutsi horri!!

Jose Angel Mikeo



LITXAR Kruasantegia

- Gosariak
- Askariak
- Hanburgesak / Sanwichak
- / Plater konbinatuak / Pizzak

Fraiskozuri enparantza 4 Tfnoa: 76 55 45 BERGARA

Zeuk galde



45. Noiz eraiki ziren San Pedro eta Santa Marinako oraingo dorreak?

Herriko bi eleiza nagusi-etako dorreak bi arkitekto gipuzkoarrek eginak dira. San Pedroko parrokiakoa, Jose de Lizardi asteasutarrak eraiki zuen 1.734 eta 1742 artean.

San Marinakoa, ostera, zenbait urte lehenago egin zen: 1.696 eta 1.701 bitartean egin zen arkitekto bergarar baten gidaritzapean, gainera. Arkitekto hori Martin Zaldua izan zen.

□ Ikasle sarituak

*Arrasateko Eskola Politeknikoan, Jose Maria Arizmendiarrera izan zenaren omenez urtero 15-16 urte bitarteko ikasleentzat antolatzen diren sarietan, Mariaren Lagundiko REMeko bigarren urteko ikasleak izan genituen protagonistak. Bergarrek, lehenengo izan ezik, beste bost lehenengo sariak eskuratu zituzten. "Gerra gatazkak aztergai" gaiaren inguruan honako hauek izan ziren bergararren lan sarituak: bigarren saria *Ainara Lete, Nuria Sanchez eta Laura Sanchez*en *Gerra gatazkak eta gu gazteok lanarentzat*. Hirugarrena *Natalia Chupsek* irabazi zuen *Golko Pertsiarrean gatazka lanarekin*, laugarrena *Raul Ramirezen Gerra eta politika anbizioa* besterik ez dira lanak jaso zuen eta bostgarrena *Arantzazu Eguren eta Lorena Egidazuk* irabazi zuten *Jugoslaviya non dago?* lanagatik.*



□ Hura iskanbila!

Berrigararen jarraitzaile gaztetxoek ere bisitatxo bat egitera etorri zitzaizkigun joan den astean; *Mari Karmen Arenaza* eta *Maria Ines Arzelusen* irakasleen laguntzaz, *Mariaren Lagundiko B eta D* eredu-tako 5-6 urteko 35 bat ikasle izan genituen erredakzioan. Guztiak jakin nahi izan zuten Berrigara nola egiten den eta ez ziren gelditu ere egin hemen egon ziren denboran. Azkenean, asko kostata, guztiak erretratatzea lortu genuen.

Tximak

Ileapaindegia

Fralkozurl 3, Tfnoa: 76 56 69



Barrenkale 31

Gaspar

Jatetxea, Txokolategia, Self Service-a

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



Artista!

Ostegunean, *Luis Larrañaga "Kikio"* bergarar ezaguna elkarrizketatzeko asmoz, *Euskadi Irratiko Goizean* behin saiokoak hurbildu ziren Bergarara. Saio horretan Bailaran diren artista guztiei eskeinitako tartea izan zen eta *Beatriz Zabaletak Kikio* elkarrizketatu zuen Bergaran. Oraingo honetan, *Kikiok*, uhinen bidez, bere artearen demostrazio bat egin zien irrati entzuleei.


Zertan dihardute ba?

MAITE ARISTEGI



EHNEko kide den 29 urteko abokatu bergarar honek larunbatean Donostian burutuko diren *Igo Emakume eta Ekolojiari buruzko ihardunaldietan* parte hartuko du, baserriko emakumeek ekolojismoarekin duten lotura aztertuz.

JON LAZKANO



Mendizale bergarar honek Txileko *Paine Torretan* iaz egiterik izan ez zuen gailurra zapaltzea lortu du. Era berean, 22 urteko gazte honek Arjentinako *Izotz Kontinentala* esploratzen dihardu, etorkizunean berau zeharkatzeko ideiarekin.

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Izkirimiriak

Artean mutiko txikiña nintzala Mondragora joan nintzan batean kalean gora ta bera "pasietan" genbiltzala, nere lagun ta zaintzalle zijoan senidearen lagun batzuekin batu "gintzan". Lenengotik takar-xamarak iruditu bazitzaizkidan ere berealaxe egin nintzan lagun. Nola ez!. "Mondrautarra" nintzala jakin zutenean, lagunetako batek, sekulako gizakotea, esaten dit...

- Orduan Kontzesiñoko itturriko uraz bautizautakua az i be e?... Ba danok eukitten juagu ta ik be eukok alako grazia aparteko bat!...

- Nik ez dakit zer "grazia aparteko" euki nezaken baiña aitortu dezadan Kontzeziñoko

uraz bataiatu ta bertan bizi diranak beintzat badutela grazia aparteko ori, gurdikadaka euki be.

Alegiñez arandegi batera eraman ginduzten, baxo-erdi bat artu behar genuela ta, baiña nere senideak gaseosa eskatu zuen neretako, ardoa edaten asteko artean "txikiña" nintzala ta. Baniardutson neure gaseosa orri, baiña lengo gizonak, nere senidea zear-begiraturaz zainduaz, esaten dio mostradoreko neskari...

- I, oni be ataraion ardaua, au be Mondrautarra don eta...

Gero hartzen du gaseosa-botilla ta sartzen dit poltxikoan, belarri- ra esaten zidala...

- Au bixar goxerako, ankak garbiketako..

Txomin Amasorrain

Antzinako kontuak

Telesforo Aranzadi eta Bergara (II)

Telesforo Aranzadi- ren luma zorrotz eta azkarrak horrela azaltzen digu horietako istilu bat:

"Por una vez que el pá-rroco de San Pedro se olvidó de poner "de" después de mi nombre de pila al copiar mi partida de bautismo, un escriba de la Universidad de Madrid pretendía que yo no debía firmar con "de"; como mi abuelo, mi padre y yo siempre hemos firmado así, no me iba a achicar por un Medina más o menos, pero los cagatintas del Ministerio se enteraron más de quince años en que este catadrático no tuviese "de" (...)"

Aranzadi hiru urte zituenean laga behar izan zuen bere jaioterria bere guasoak Bilbora joan baitziren La Vergaresa izenez ezagutzen zen goxotegi batetaz ardura-

tzera. Goiz atera bazen ere Telesforo Bergaratik behin eta berriz itzuliko da bertara eta bere jaioterriaz zuen maitasuna ongi isladatzen du Bergarari edo bertoko pertsoneri eta gertaerei buruzko lanetan.

Gaztaroa pasa ahala eta Bilboko erdal giroaren eraginez eta kanpoan bizi izan beharrak ama hizkuntza ahultzea lortu zuten. "Aunque no hablaba la lengua vasca, llegó a conocerla de grado suficiente para coger al oído lo que se decía en una conversación cualquiera, y leía diariamente los artículos de los periódicos locales escritos en vascuence, cuando se hallaba en el País Vasco" dio Jose Miguel Barandiaranek.

Xabier Larrañaga



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

MUGICA

Burdindegia

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.

Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Zezeaga, ozta ozta

Zezeaga eta Unanuek asko sufritu zuten ostiralean Gasteizko Ogeta Pelotalekuan *Bergara II.a* eta *Arretxeren* aurka garaipena lortzeko. Arretxe eta Bergara II.a aurretik izan genituen markagailuan ia partiduan osoan zehar (2-9 eta 14-18) baina Unanue eta Zezeagak garaiz erreakzionatu zuten azkenean 22 eta 18ko emaitzarekin nagusitzeko. Unanue eta

Zezeaga binakako txapelketan faborio nagusienetakoak direla konfirmatu bazuten, Bergara eta Arretxek ere beraiekin kontatu beharra da goela argi utzi zuten. B taldeko lehen ihardunaldi hau jokatu ondoren Unanue eta Zezeaga sailkapeneko liderrak ditugu eta igandean, hilak 15, *Salaberria* eta *Galarzaren* aurka jokatu dute Eibarko Astelenan.

Txinpartak

✓ *Iñigo Igartuak* igandean *Erroman* jokutako *Super Prestijioko* karreraren, 11. postua lortu zuen, *Daniele Pontoni* irabazle italiarrak minutu bat eta 33 segunduko aldea atera ziolarik helmugan.

✓ *Bergarako senior gizonetzkoen saskibaloit* taldea berriz ere garaile izan genuen astebukeraren Donostian *Politeknikoren* aurka jokaturako partiduan. Bergararrak 73 eta 76ko emaitzarekin nagusitu ziren eta sailkapeneko *lider* jarraitzen dute.

✓ *Bergarako futbol taldeak* garaipen garrantzitsu bat lortu zuen igandean *Idiazabalen Atauen* kontra jokaturako partiduan. *Mendozak* sartutako golak bergararren aldeko 1 eta Oeko emaitza jarri zuen markagailuan eta Bergarak sailkapeneko buruan darrai.

✓ Futbolarekin jarraituz, *Bergara Kirol Elkartek* futbito kadete txapelketa antolatu du Gabonetarako. Izena ematea Igerilekuko tabernan egin dezakezue.

✓ Mendiko zein skiko federatu karneta ateratzea nahi duten guztiek *Pol-Poleko* bulegora jo dezakete.

Arientza bigarren

*Jose Mari Marzana "Arientza"*k ezin izan zuen eskuratu joan den ostiralean Jataben jokaturako *Bilbao Bizkaia Kutxaren* idi-probetako finala; *Madariagako Ezkerrak* untze bat baino gutxiagoko aldea atera zion *Arientzari* eta garaipena lortu zuen. Bigarren postu horri esker, otsail aldera, *Arientzak Super Prestijioko* finalean parte hartu ahal izango du. Larunbatean Getxon, angiozartarra bigarren izan genuen berriz ere *Ezkerraren* atzetik, eta larunbat honetan, hilak 13, biak *Bizkaiko Diputazioaren* finalean aurrez aurre izango dira Abadinon.



ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

PANADEROKUA

Taberna

Aste osoan
Babarrunak eta
saiheski errea

ELGETA, Tfnoa: 76 82 73



Era guztietako
kristaleria: Ispiluak,
bidrierak...

UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA



1982-83 ikasturteko Institutuko 1. mailako ikasleak

Orain ia 10 urte Ikastolatik Intitutura heldu berria zen talde hau Imanol Iriagarai Angiozarreko orduko abadeak erretratatu zuen; Imanol, Erlijioko irakasle izateaz gain, argazkizale amorratua genuen eta han ibiltzen zen, gora eta behera, Institutuko ekintza guztietan *foto*grafo lanak egiten.

Argazkian agertzen den irakasle galziarrak Gaztelaniako klaseak ematen zituen eta nahiko polemikoa suertatu omen zen. Azkenik, irakasleen protesten eraginez, Institutua utzi behar izan zuen.

Ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Nere Amaia Murgizu, Iosu Elkoroberezibar, Iñaki Legazpia, Joseba Otaño, Alex Azkarate, Mikel Gonzalez, Jesus Martinez eta Nerea Akizu.

Zutik: Jesus Blanco irakaslea, Maribel Berasategi, Miriam Perez, Ion Ayastui, German Lete, Fernando Azula, Javier Ibarra, Aitor Payros eta Amaia Irizar.

Jarrita: Iñigo Mujika, Eduardo Mendibil, Nekane Berasategi, Arantzazu Moreno, Maite Uribeberria, Nerea Bergara, Juan Luis Izuskiza eta Ane Miren Iturralde.

Argazkia: Imanol Iriagarai



jolas



**GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27



ETXEBIZITZA

Pisua daukat eta konpartitzeko lagunena bila nabil. Deitu: 762457 (eguerdian).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. Tfnoa: 765823.

Garajea alokairuan utziko nuke Burdizaten. Deitu: 763189.

Pisua salgai, Iraburu kaleko 10.ean. Deitu 763911 telefonora.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera: 764252.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

Pisua errentan hartuko nuke. Deitu: 760357

SALDU-EROSI

Paralela eskopeta ederra salgai. Deitu: 764512

Kotxerako erremolkea salgai. Tfnoa: 764512

YAMAHA PSR3 organoa salgai. 24 erritmo eta 100 ahots. Hanka, transformadore eta guzti. Berri-berria: 60.000 pzta. Deitu: 765231, gauez.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. Tfnoa: 762512.

PCrako joku original eta kopiatuak (100 inguru) saltzen ditut. Oso merke!! Deitu: 761785 (Asier).

200 litrotako **Fagor** termo elektriko salgai. Deitu: 764988 gauez.

3 pertsonarentzako **Iglu kanping-denda** berria salgai. Deitu: 763495.

Logela bat eta **altzariak** salgai oso merke. Deitu: 761929.

AMSTRAD CPC 6128 ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 40 joku eta 3 Joystick. 50.000 pzta. Deitu: 761528.

Erabilitako altzariak erosiko nituzke (mahaiak, aulkiak, armairuak, etab). Deitu: 768157, gauez.

Neskentzako bizikleta salduko nuke. BH bole-oro rosa modelo. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

Narruzko kremaileradun txaketa salgai. Berri-berria. Deitu: 763968.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta bategatik trukatu nuke. Deitu: 763269.

LANA

Produzio saileko **Ingeniero-tekniko** batekin egingo luke. Tfnoa: 761913

Arratsaldean lana egingo nuke **etxeko** lanak egiten edo **umeak** zaintzen. Deitu: 765482.

furgoneta batekin **errekauak** egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

Hildakoak

Natividad Azkarate Azkarate
abenduaren 8an, 81 urte
Felisa Auzmendi Goia
abenduaren 11ean, 87 urte

Jaiotakoak

Unai Martinez Pascual
abenduaren 1ean

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Etxenagusia

Berezitasunak:

kremazko kafea eta paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08

URTE BAT EGITEAN

BERRIGARA RI

ZORIONAK ETA URTE
ASKOTARAKO

Bergarako Udala




Euskara eta Hezkuntza
Batzordea

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA